

“Zortzi euskal deitura eta zortzi arrazoi oker”. Bai, eta zortzi aitzakia nabarmen Xabier Kintanari diozun gorroto eta mesprezu pertsonala agerian jartzeko. Hori esatea ahaztu zaizu eta.

Begira, nik irakurri nuen Xabier Kintanaren” artikuluxka” (zurea ez da artikuluxka, noski, zurea “idazlan sakona eta mamitsua” da, zeren besteek egiten dutena “-xkak” dira; baina zuk egiten duzuna urrea eta goi-mailako jakituriaren adibide baizik ezin daiteke izan. Jainkoak berak –munduko lehen euskaldunak alegia– ikasi beharko luke zugandik, ezta?). Begira, esango dizut zer pentsatzen dudun: zurea bezalako “artikulu ustez sakonak” unibertsitatean aurkeztu beharko zenituzkeela, eta benetako adituen onespina edota gaitzespena han bilatu beharko zenukeela.

Agian, zure kamarada maiteak lerdea dariela utzi dituzu zure “jakituria neurritz gainekoarekin”, baina nigan mesfidantza baino ez duzu erein eta irabazi. Lekuz tronpatu zarela esan nahi dut. Zer uste zenuen, ba? Jendea aho zabalik utziko zenuela zure “ezagutza zabal eta hondorik gabearen” aurrean? Nortzuk konbentzitu nahi zenituen zure “zientzia objektibo eta eskerga” horrekin? Latinez hitz bat ere ulertzen ez dutenak...? Zure artikulua oso espezializatua da, itxuraz, baina ez dakit ona den, aditu bakan batzuek baino ezin dute hori jakin. Publiko orokorrarengana onespina bila joatea erabaki duzu ordea, eta horrek hitzontzikeriaren mugan jarri zaituela esan nahi dut.

Benetan, baina zure artikulua irakurri eta gero, horixe pentsatu dut: “Bo, hitzontzi bat. Xabier Kintana arrazoi pertsonalengatik zapaltzeko, aitzakia bila dabilen hitzontzi bat”. Xabier Kintanaren “artikuluxkan” gauzak era erraz batean azaltzen ziren (gauza konplexuak erraz adierazteak badu meritua; zuk, ordea, Inkisizioa baino ilunago agertu zara zure super-artikuluan).

Agian, zu zuzen zabiltzala sinestea fede-kontua izango da. Baina, kasu horretan, nongo fedearen misiolaria zaitugu, zehatz-mehatz...? Ea ulertzen didazun, ni ez naiz Xabier Kintanaren adiskide mina, ezagutu ere ez dut egiten, ez nago ez Kintanaren aurka ez Kintanaren alde (eta gauzak horrela planteatzea ere barregarria irudituko litzaidake, batez ere argitalpen ez-espezializatu batean). Baina zure artikuluan erabili duzun tonuak mindu egin nau, ez dakit baina, zientzialaria edo hizkuntzalaria baino gehiago, maltratatzailer intelektual horietako bat ematen zenuen. Hori da sorrarazi didazun sententzia. Eta, ziur aski, hori da erantzutera bultzatu nauen arrazoia.

Berariaz, Xabier Kintanak bere bizitza pertsonalean egin zituen aukera politikoak ez ote dira Kintanaren kultur lana osorik mesprezatzera bultzatzen zaituzten benetako arrazoiak izango, ezta? Hemen, Euskal Herrian, espiritu horrekin funtzionatzen zuten gorila siziliar asko ezagutu ahal izan ditugulako esaten dizut hori.

Eta beste gauza bat, amaitzeko. Xabier Kintanak bere artikulua izenpetzeko erabili duen eranskina (“Euskaltzaina”) dela-eta kexu azaldu zara, “pertsona zibil gisa idatzi

zezakeen autoreak” diozu¹. Bueno, baina zu ere ez zara batere herabe-edo agertu “toponomasta” hitz arranditsu eta hantustea erabiltzeko orduan. Gainera, Xabier Kintana euskaltzaina da. Ez du, alde horretatik, gezurrik esan. Eta horrelako gai espezializatuak jorratzen dituen akademikoki nor den argitzea ez dut uste inoiz soberan dagoenik.

Xabier Galarreta

¹ Hemen ere agerian jartzen da zure jarrera intransigentea, Kintanak bere artikuluak nola izenpetu behar dituen irakasteko ausardia eta guzti hartu baituzu. Laster, dekalogo bat atera beharko duzu, “Artikuluxkak Izenpetzeko Araubide Mamitsuak” izenpean edo.